

## AMA TA AURRA TRISTEAK



Inauterietako  
 bigarren eguna  
 eta Bulebarrian  
 izer zorotasuna!  
 Zalapartan jendia,  
 pill, alaitasuna,  
*maskara karrozakiñ*  
 baire edertasuna.  
 Emakume bat zegon  
 ango bankuetan  
 ešerita, zubela  
 aur bat besuetan.  
 Zebillen eskuekiñ  
 aurchua indarretan  
 gora bera, ta farrez  
 bere gis'izketan.  
 Artsaldea zijuan  
 aurrera šamarra  
 eta jendez betia  
 zegon Bulebarra,  
 ikusten zutenekiñ  
 egiñikan farra,  
 bañan emakumeak  
 bakarrik, negarra.

Azaldutzen zanian  
 zerbait dizdizari  
 soñeko apainduetan  
 gauza gustagarri,  
 berialašen ziyon  
 beiratzen aurrari,  
 bat batian emanik  
 berriz negarrari.  
 Noizik bein biltzen ziran  
 an aldamenian  
 adiskide batzuben  
 alaitu nayian  
 kupiturik, ta aguro  
 joaten ziranian  
 gašua gelditzen zan  
 bakartasunian.  
 Nere artean negon  
 ni burua galtzen  
 samiñtasun arretan  
 nola zan arkitzen.  
 Denbora luze gabe  
 ezagutu nuben:  
 ¡ay! zeukan aurcho ederrak  
 ez zuben ikusten.

MARZELINO SOROA.

